

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2012ko otsailaren 8a. IX. urtea. 2.356. zenbakia. tolosaldea.hitza.info

Egoitz Zalakain Triatloilaria

«Challenge Copenhagen proban iazko marka hobetzea da nire helburua»

Pasa den urtean Danimarkako lasterketan profesional asko baino lehen helmugaratu zen eta seigarren egin zuen; 8 ordu eta 26 minutu egin zituen kirolari tolosarrak

Tolosarra Espainiako Txapelketako azpitxapelduna izan berri da Jakan; ez da profesionala, baina maila altua du, «nire helburua ez da profesionala izatea», esan du o3



Emakumeek «etorkizuna marrazteko» gunea izango dute Leitzaan

Euskal Herriko Bilgune Feministak 'Hamaika egiteko ari gara' lelopean Emakume Abertzaleen Topaketak egingo ditu martxoaren 2tik 4ra; «feminismoz janzteko aukera ezin hobea» dela diote antolatzaileek o5

Patziku Perurena Idazlea

«Ikerketa oso lokala izango da, Leitzaan eta Urumeako datuekin»

Larramendi ikerketa saria irabazi du 'Unaia galduta eta Artzaia ugalduta' lanarengatik; unaien bukaera eta artzainen hasiera uztartzen dituen garaia izango du hizpide leitzaan bizi den idazleak o4

Tolosako Andia elkarteak Antxon Bandres izango du gogoan alardean

Kultur elkarteak Nafarroako konkistaren inguruko zenbait jardura antolatu ditu; hiru hitzaldi eta bazkari napoleonikoak egingo dituzte, besteak beste o3

Imanol Garcia

Indartsu hasi da aurten Atletico San Sebastian taldeko Egoitz Zalakain (Tolosa, 1980) triatloilaria. Neguko triatloian, Espainiako Txapelketako azpitxapelduna izan berri da Jakan (Espainia). Aurrera begira, iaz Challenge Kopengageko proban egin zuena horetu nahi du.

Neguko triatloian Espainiako azpitxapelduna izan zara. Iaz bosgarren izan zinen. Espero zenuen aurtengo emaitza?

Neguko triatloian espezialistak direnak eta hori prestatzen dutenak daude. Nik ez dut bereziki prestatzen. Orain urte batzuk proba guztia elurretan izaten zen eta nik orduan ez nuen parte hartzen. Iaz berreskuratu zen hasierako formatuarekin, hau da, korrika eta bizikletarekin errepidean egiten duzu eta gero eskiatuz amaitzen duzu proba. Beraz, berriro hasi nintzen, eta iaz ondo joan zitzaidan. Aurten Jakan zen proba; ez nuen bereziki prestatu, baina ondo aterata zitzaidan.

Kirol munduan, neguko ala udako triatloian hasi zinen?

Hain justu nire lehenengo triatloia Jakan egin nuen, 18 urterekin. Betidanik kirol dezente egin ditut eta iraupen eskian ere lehiaitzen nintzen. Unibertsitateko lagun baten bitartez egin nuen Jakako triatloia. Beraz, lehenengo triatloia negukoa izan zen. Gero, hortik abiatuta hasi nintzen udako triatloiak egiten, eta horretara bideratzen dut, batez ere, nire kirol jarduerara. Iaz eta aurten egingadako neguko triatloiak proba puntualak izan dira.

Gustura egon beharko duzu, asko prestatu gabe, azpitxapeldun izanda.

Bai, oso gustura. Ez zen esperotako zerbaite. Ez zen helburua; proba ondo aterata zen eta emaitza hori lortu nuen.

Txapelduna, Jon Erguin, eta zu batera joan zineten proban zehar.

Jon Erguinek neguko triatloiak prestatzen ditu. Banekien indartsu zegoela, lagunak gara, Jakan egin nuen lehenengo triatloia berarekin egin nuen... Jakinik neguko triatloietan ibiltzen direnak baino hobeto aritzen naizela korrika, eta eskiatzen agian huts egingo nuela, aprobetxatu nintzen Jon hor zegoela eta talde lana modukoa egin genuen. Korrika aurrera egin nuen eta gero bizikletan itxoin egin nion, batera joateko. Ondo konpondu ginen, eta eskiatzen hasierako lasterketa erabakita utzi genuen.

Beste neguko triatloirik ez duzu egingo, beraz.

Ez, orain hobeto moldatzen naiz distantzia luzeko triatloietan, Iron Man-eko distantzietan. 2007an belauneko lesio garrantzitsu bat izan nuen, eta pixkana berriro hasi naiz martxa hartzen. Iaz Kopengagen lasterketa oso ona egin nuen. Mundu guztiko bi mila lagunek parte hartu zuten, tarte-



HITZA

Egoitz Zalakain › Triatloilaria

Gorputzak, prestaketak eta buruak ondo erantzuten diote Egoitz Zalakain tolosarrari. Profesionala ez bada ere, horien mailan aritzen da, eta kirolaren arabera antolatzen du bere bizitza.

«Zure buruaren aurkako borrokak egiten du kirola polita izatea»

an onenetakoak, eta seigarren egin nuen. Ikusi nuen zenbaterainoko ahalmena nuen. Aurten berriro egin nahi dut, baino ondo ondo prestatu nahi dut. Ezin dira gauza guztiak batera egin. Helburua da abuztu aldean ondo egotea; horregatik aukeratu egin behar da.

Ez da postu makala seigarren egitea horrelako proba batean. Zer denbora egin zenuen?

8 ordu eta 26 minutu; Iron Man distantzian Espainiako inoizko seigarren onena.

Aurtengo denboraldia lasterketa horretara bideratuko duzu. Zer beste proba egingo dituzu?

Lasterketa hori da garrantzitsuenena, eta egiten ditudan besteak horren arabera izango dira. Oraindik ez dut guztiz zehaztu.

Kopengagen profesional mailan aritzen diren batzuen aurretik bukatuko zenuen.

Profesionalak asko zeuden, eta,

bai, batzuen aurretik sartu nintzen.

Eta profesional mailan aritzeko zer behar da? Asmorik baduzu horretarako?

Oso zaila da; dirua babesle pribatuetatik lortzen da, eta herrialdeak zeresan handia du. Euskal Herrian eta Espainian ez dago dirurik horretarako. Laguntzak lortzen dira, dirua ateratzen da, baina ez bizitzeko hainbeste. Beraz, ez da nire helburua profesionala izatea.

Halere, zure mailan aritzeko, asko entrenatu behar da.

Bai, ia bizitza horren inguruan egiten duzu. Kirolaria baldin bazara, gauza guztietarako zara. **Zenbat ordu entrenatzen duzu egunero?**

Prestaketaren arabera izaten da hori; astean hogeita ordu inguru. Ez da sakrifizioa; aukera bat da: zure bizia antolatzen duzu kirolaren inguruan.

Hemendik urte batzuetara zailagoa izango da maila horretan aritzea.

Azkeneko Iron Man-eko mundu txapelketa irabazi duenak ia 40 urte zituen. Nik 31 urte ditut eta urtetik urtera hobetzen ari naiz. Hobetzen ari zarelarikosten baduzu, helburuak jarri eta ilusioa duzula... Iazko lasterketan espero gabe seigarren bukatu nuela ikusita, sekulako indarra eta ilusioa ematen du ahalik eta gehiago hobetzeko.

Udako triatloian, hau da, igerian, bizikletan eta korrika, zertan moldatzen zara hobeto?

Igeri egiten okerrera. Korrikan eta bizikletan antzeko. Iaz maratona egin nuen oso ondo Kopengageko proban, bi ordu eta 45 minutu eginez. Iron Man baterako oso ona da. Hiru ordutik oso gutxi jaisten dira.

Igeriketa bereziki prestatu behar izan duzu triatloian aritzeko?

Bai, txikitatik igerilariak ez garenak izan, ikasi beharreko gauza bat da eta gehiena kostatzen dena da.

Kopengagera irabazteko asmoz joango zara?

Ez dakit zer postu egingo dudan, nire burua gaintzeko egiten dut kirola; irabazteko besteen kontra egin behar duzu. Ez da helburua irabaztea, ez dut horretarako entrenatzen. Nire helburua iazkoa hobetzea da.

Halere, horrelako proba luzeetan edozer gauza gertatu daiteke, eta denbora asko galdu.

Arazo asko gertatu daitezke, baina prestaketaz gain, exekuzioa ere garrantzitsua da: erritmoa gaizki kalkulatu baduzu, dena gaizki joaten zaizu; baina horregatik da polita ere.

Buruak ere garrantzi handia izango du, batez ere, distantzia handiko triatloietan.

Fisikoki ondo egon behar zara eta prestaketa egin behar duzu, baina aurrera segitzeko buruak egiten duen lana da garrantzitsuenena. **Zure gorputza ondo ezagutu behar duzu.**

Lasterketa hauetan hainbeste gauza gertatu litezke... Zailena da ordu guzti horietan kontzentratuta mantentzea, zure buruari exijitza eta erritmoa ez jaitea. Ez da proba erraza, baina niretzat behintzat hori da politena: ez da bakarrik alde fisikoa; kirola norbera burua gaintzea da eta hemen parte handi bat hori da, zure buruaren kontra egin behar duzun borroka hori, eta horrek egiten du oso polita. Lasterketa luze hauek duten onena da, momentu txar gutxietan eman ondoren, helmugara iristean lortzen duzun poza.



Ekainaren 12an ospatu zuten iaz, Tolosako I. alardea. I. URKIZU

Antxon Bandres omenduko du Andia kultur elkarteak aurtengo alardean

Prestatu dute 2012rako egitaraua, eta Nafarroako konkistaren inguruan hainbat jarduera egingo dituzte

I. Urkizu Tolosa

Andia kultur elkarteak bigarrenez antolatuko du aurtengo gudu napoleonikoak gogora ekarriko dituen Tolosako alardea, eta berrikuntzez gain, Antxon Bandresi omenaldia egiteko probestuko dute eguna.

Iaz izan zen bezala, aurtengo ere ekaineko bigarren asterako aurreikusitako gudu napoleonikoak antzeztea. 1813ko ekainaren 25ean Tolosan izan zen bataila bat gogora ekartzeko helburuz antolatuko duen Andiak iaz lehen alardea. Hainbat lagun soldaduz jantzi, eta herriko kaleetan barrena desfilea osatu zuten, Tolosako Musika Banda lagun zutela. Gudu bera, berriz, Nafarroako zubian antzeztu zuten, musika banda Beethoven-en *La batalla de Vitoria* obra eskaini zuen bitartean.

Aurtengo, egitaraua bertsua jarraituko du Andia kultur elkartearen ospakizunak; alardean berrikuntzak ere izango dira, ordea. Besteak beste, garaiko anbulantzia eta osasun zerbitzuek parte hartuko dute Nafarroako zubiko antzerkian. Era berean, Napoleonen garaiko tropen kanpamentu bat ere berreraikiko dute Trianguloa plazan. Berrikuntzen gainera, Andia kultur elkarteak antolatzaileek 2011n zendu

zen Antxon Bandresi omenaldia egingo diote alardearen egunean: «Aurtengo alardea gure lagun eta kidea zen Antxon Bandresen omenez egingo dugu, eta bere irudia gure ekitaldi guztietan nagusituko da».

Tolosako bigarren alardeaz gain, ordea, 2012an garai napoleonikoari bestelako keinu bat ere egin nahi izan dio Andia kultur elkarteak tolosarrak, eta maiatzerako senidetze bazkari napoleonikoak antolatuko dituzte. Lehenengo bazkaria maiatzeko asteburu batean izango da: «Gure ideia herriko su-

Alardean garaiko anbulantziak nahiz kanpamentuak berreraikiko dituzte

Nafarroako konkistaren harira, hitzaldi sail bat antolatu du Andiak

kaldariaren gaitasuna, gure iragan historikoarekin nahiz inauterizatasunarekin uztartzea da. Finean, azken helburua Tolosa turistikoki erakargarriago egiteko zerbitzua gehiago antolatzea da».

Nafarroako konkistaz

Nafarroako konkistaren 500. urteurrena dela eta, Andia kultur elkarteak hitzaldi sail bat egingo du proposatu zion Tolosako Udalarari.

Kultur elkarteak aurkeztutako herriko beste hainbat eragileekin batera egingo duten ospakizunaren barruan sartu du udalak, aldaketa batzuekin. Horrela

beraz, konpartsak, dantzariak, dultzaineroak, azoka, hitzaldiak eta beste hainbat jarduera izango dira maiatzean, Nafarroako konkistaren inguruan.

Andiak hiru hitzaldi antolatu ditu, baina honekin batera beste hainbat hitzaldi ere izango dira: *La guerra de Navarra*, Peio Monteano Sorbet-en eskutik; *Los castillos de Mendikute y Ausa*, Inaki Padillak eskainiko du; Jose Antonio Recondok eta Victor Herreok *Gipuzkoa en la conquista de Navarra* hitzaldia eskainiko dute; *La conquista de Navarra desde la perspectiva política de hoy* mahai inguruan Nabarraldeko Floren Aozek, Vicente Serranok eta Joseba Asironen parte hartuko dute; Xosé Estevezek eta Jose Luis Orellak *Navarra y sus relaciones con Castilla y la Santa Sede* izango dute hizketagai, eta azkenik, Aranzadi zientzia elkarteak Juantxo Agirre Mauleonek *Amairu* hitzaldia eskainiko du euskaraz.

Nafarroako konkistaren hari berari tiraz, maiatzaren 12an eta 19an mendi irteerak izango dira. Lehenengoa Azpirozetik Gorritira egingo dute, Gorritiko gaztelua bisitatzeko asmoz; Andia kultur elkarteak Naiara Zubillagak eta Jose Luis Orellak gidatuko dute ibilbidea, eta Jose Luis Recondo ere laguntzaile moduan ariko da; euskaraz nahiz gaztelerez eman- gogotuzte azalpenak.

Bigarren irteera, berriz, Mendikuteko gaztelura izango da, eta Auza Gaztelura ere joango dira. Kasu honetan Aranzadi zientzia elkarteak Inaki Padilla ariko da gidari lanetan.

Genero ikuspegia bertsoaren mundutik landuko du U.morez-ek

Villabonako Subijana etxean izango dira ekitaldiak, otsailaren 16an eta 23an, 18:00etatik aurrera

I. Urkizu Amasa-Villabona

Generoa bertsoaritzan aztertze-ko edo azaltzeko helburuz, aurtengo U.morez jardunaldiak antolatu ditu Euskal Herriko Bertsozale elkarteak, Villabonako Subijana etxean.

Datorren ostegunean, otsailaren 16an, izango da lehenengo saioa. 18:00etan hasita, Mari Luz Estebanek hitzaldia eskainiko du: *Begirada feminista bat euskal kulturari: irakaspenak periferiatik*. Medikuntza lizentziatua eta gizarte antropologian dokorea da bera, eta familia plangintzan, generoaren esparruan eta giza harremanetan aritzen da irakasten nahiz ikerketak egiten.

Jarraian, 19:30ean, Ander Izagierren txanda izango da, *Betarreko moreak jarri nituenean...* *kaetaritzatik esperientzia bat* hitzaldiarekin. Kazetari eta idazle

donostiarrak, batez ere bidaien inguruko lanak idatzi izan ditu, besteak beste, *National Geographic* edo *Altair*

Hilaren 23an, U.morez jardunaldien bigarren saioa izango da, eta ordu berean hasiko dira ekitaldiak, 18:00etan. On: giz elkarte-ko Mikel Otxotorena hasiko da, *Maskulinitate klasikoaren erakuntza publizitate eta zinemaren bidez* izenburua duen hitzaldiarekin. Emakumeen eta gizonen arteko parekidetasunean lanean daramatza hainbat urte, eta besteak beste, Gizon Sarea nahiz On: giz elkarteetako sortzaileetako bat da.

Azkenik, Jardunaldiak amaitzeko, Maddi Oihenart abeslari zuberotarrak *Kantugintzatik esperientzia bat* hitzaldia eskainiko du 19:30ean.

Afaltzeko aukera ere bai

Bertsozale elkarteak genero taldea aritu da U.morez antolatze-ko lanetan, eta hitzaldiak amaitu eta gero afaltzen geratzeko aukera ere eskaini dute. Horretarako, aurretik eman beharko da izena *umorez@bertsozale.com* helbidera idatzita.

→ Laburrak

Sinadura bilketa lurperatezaren alde


HIRIGINTZA » Larramendiko lurperatezaren aldeko bizilagunek enpresa eraikitzaileei burofaxa bidaltzea erabaki dute, hasierako proiektuarekin aurrera jarrai dezaten. Idatzia bizilagunei banatu diete, sinadurak biltzeko deialdiarekin batera; gaur izango da, 19:30etik aurrera, aukeratu ezkaratzen. Enpresa eraikitzaileek lurperateza egiten ez badute, bizilagunek epaitegietara joko dutela azaldu dute.

Iratxe Esnaolaren 'Galerna' liburua aztergai

LITERATURA » Bihar izango da Galtzaundi irakurle taldearen bilera. 19:30ean elkartuko dira Antonio Maria Labaien kultur etxean, eta irakurri beharreko liburua Iratxe Esnaolaren *Galerna* izango da.

Azken lekuak mugikorren inguruko ikastaroan

EKONOMIA » Tolosaldean Ikastn-ek smartphone-ak industrian nahiz marketing-ean erabiltzeko ikastaroa antolatu du, eta azken lekuak geratzen dira libre. Izena eman nahi duenak *www.ikastn.com* webgunean egin dezake.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Irudia > Ibarra



BUKAERA POLITA EMAN DIOTE XII. KULTUR ASTEARI

Asteburuan bukatu zen Uzturpe ikastolaren kultur astea, ekitaldi ugariarekin. Larunbatean, *Jokuak eta jolasak* tailerrari amaiera emateaz gain, haur festa egin zuten. Etxeko txikienek ederki gozatu zuten puzgarrietan, eta gurasoek prestaturiko txokolate goxoa ere dastatu zu-

ten. Festari Alurr dantza taldeko gaztetxoek eman zioten amaiera. Ordubeteko emanaldian dantzariak «dakiten guztia» erakutsi zuten, «antolaketa eta trebetasun handiz», eta hain gazteak izan arren, ikus-entzuleen arreta bereganatu zuten. Dantzan aritu ziren 20

dantzariak Uzturpe ikastolako ikasleak dira. Bestalde, Uzturpe ikastolak «esker beroenak» eman nahi dizkie kultur astearen antolamendu eta ekintzetan parte hartu dutenei eta euren laguntza eskaini dutenei, «euren babesik gabe ezinezkoa izango bailitzateke». HITZA

→ Laburrak

Udalak Ibarako sokatira taldea zoriondu du

IBARRA › Ibarako sokatira taldeak Euskal Herriko Txapelketa irabazi berri du gizonezkoen mailan, 640 kilotan, eta horregatik zoriondu du Ibarako Udalak: «Ez da nolanhiko garaipena, aurtengoan indarrek jarri dute garailea eta hori gure herriko sokatira taldea izan da». Sokatira taldekoak «lan handia» egiten ari direla gaineratu du udalak: «Hori fruituak ematen ari da. Segi horrela zuen lanean eta Munduko Txapelketan emaitza onak lortu».

San Bartolome jaietako argazkien erakusketa

IBARRA › Pasa den urteko San Bartolome jaiak gogoratzeke aukera polita ematen du egunotan Ibarako kultur etxeak. Izan ere, udaleko Kultura sailak antolatuta, festetako argazkiak daude ikusgai bertan. 300 argazki inguru daude, eta nahi duenak euren kopia eskatzeko aukera ere badu, bakoitzaren kostua 0,50 euro delarik. Erakusketa martxoaren 2ra arte egongo da zabalik, 10:30etik 13:00etara eta 15:30etik 21:00etara.

Erlo mendia ezagutzeko aukera, larunbatean

Haitzetan Raju eta Ibarako Bai Euskal Herriari ekimenak antolatu dute mendi irteera

I. Terradillos Ibarra

Azkoitia inguruan dagoen Erlo mendia ezagutu ahalko da larunbat honetan Haitzetan Raju eta Ibarako Bai Euskal Herriari ekimenaren bidez. Izan ere, egun pasa antolatu dute mendi honetara, eta animatzen den orok izango du parte hartzeko aukera.

08:30ean irtengo dira Ibarako

plazatik, eta antolatzaileen esanetan, ura eta ogitartekoa baino ez du eman behariko norberak. «Aterpean salda eta kafea hartzeko aukera izango dugu», azaldu dute. 3-4 ordu inguruko bidea eginda, 16:00ak aldera itzuliko dira Ibarara. Parte hartu nahi duenak antolatzaileekin jarri behariko du harremanetan.

Ibilbideari dagokionez, 1.036 metroko garaiera duen Erlo mendia igotzea izango dute helburu ibartar nahiz animatzen den orok. Izarraitz mendigunean nabarmetzen den tontorra da Erlo, Xoxoterekin batera. Erloren gainaldean, harri, larre eta pagadi artean, paisaia polita osatzen

dute hainbat tontor menditsuek. Bestalde, antolatzaileek adierazitakoaren arabera, inguru horretan bada mendi aterpe «dotore»

bat, taberna eta lotarako lekua eskaintzen dituen, beraz, nahi dutenek ere asteburua igarotzeko aukera izango dute.



Izarraitz mendiguneko irudia. HITZA

Hemendik aurrera **Elhuyar** ere **Euskal Herriko Plazan**

ESKAINITZA BEREZIA:

Zientzia eta teknologiaren hiztegi entziklopedikoa



35€

~~65€~~



Baliatu eskaintzaz
otsailaren 29a bitartean.

www.euskalherriko
plaza.com



Hamar urte eta gero topaketa feministak hartuko ditu Leitzak

Martxoaren 2an, 3an eta 4ean egingo dira Emakume Abertzaleen V. Topaketak; aurrez izena eman daiteke

Iñigo Terradillos Leitza

Duela hamar urte Leitzak hartu zituen estreinako topaketak, artean Euskal Herriko Bilgune Feminista sortu gabe zelarrik. Hamarkada igaro ostean, Leitzara itzuliko dira Emakume Abertzaleen Topaketak, *Hamaika egiteko ari gara* lelopean. «Emakumeen hausnarketarako espazioa eta etorkizuna marrazteko gunea» martxoaren 2a, 3a eta 4ean egongo da zabalik.

Iragan ostiralean aurkeztu zuten Leitzaldeko Bilgune Feministak bosgarrenez egingo den ekimena. Saioa Iraola mugimenduko kideak topaketa feministetan parte hartzen duten emakumeek «feminismoaz janzteko aukera ezin hobea» izango dutela adierazi zuten. «Eskualdeko emakume guztiak dira ongi etorriak, gazteak, helduak, amonak, base-eritarrak, zaintzaileak, etxeko andreak... ekimena guztientzat hausnarketa gune izatea gustatuko litzaiguke», azaldu zuten.

Parte hartzeko modu ugari

Hiru egunetan zehar tailerrak egongo dira, gai ezberdinen inguruan, eta formaziorako, eta emakumeek euren iritziak botatzeko eta jasotzeko aukera «paregabea» izango da. Bilgune Feministaren helburu nagusia «Leitzaldeko emakumeek topaketak gertu sentitzea» da. Horretarako, parte hartzeko «aukera ugari» daudela diote. «Norbaiti tailer bat interesatzen bazaio bertara joanez, edota topaketa guztietan parte hartu nahi izanez gero, parte hartuz, edota kontzertuetara gerturatuz», adierazi zuten Iraolak. «Ahalik eta era zabalenean» planteatzen dituzte, beraz, Topaketak «hausnartzeko, eztabaidatzeko, ikasteko, ezagutzeko, ongi pasatzeko... kokalekua izateko xedez».



Iragan ostiralean egin zuten ekimenaren aurkezpena Leitzan. HITZA

ren barruan lo egiteko lekua, otorduak nahiz tailerrak sartzen direlarik. Halaber, nahi duenak gustuko duen ekitaldiren batean ere parte har dezake, aurrez nahiz egunean bertan izena emanda.

Leitzaldeko emakumeek topaketak «gertu» sentitzea da helburua

Parte hartzeko modu ugari daude: egun bakarrean, guztietan edo ekitaldiren batean

Ostiraletik igandera bitarteko iraupena duten topaketetan osotasunean nahiz egun bakarrez parte hartzeko aukera dago, beraz, eta horren arabera izango da ordaindu beharrekoa, prezioa

«Lan handia egin da orain arte, baina asko dago egiteko». Horixe adierazten du bosgarren Topaketako leloak. Izan ere, Leitzan 2001ean eginiko lehen topaketen ostean Euskal Herriko Bilgune Feminista sortu zenetik pauso ugari eman dituzte, «zapalkuntza

patriarkalarekin amaitzeko bide ona» hartua dute, eta euren proiektua «babezuago» sentitzen dute. Egun bizi dugun egoeraz, berriaz, «feministen arteko akordioa eta lankidetzeta inoiz baino garrantzitsuagoa» dela diote, «gure eskubideen behin betiko aitortza lortzeko abagune ezin hobea baita oraingoa». Egungo egoeraz, eta aurrera begira eman beharreko pausoez eztabaidatzeko aukera polita izango dute ekimena antolatutako hiru egunetan, baina emakumeek soilik. Izan ere, iluntzeko ekitaldiak eta igande eguerdiko ekitaldi nagusia baino ez dira izango emakumezko nahiz gizonzkoentzat. «Garrantzitsua iruditzen zaigu emakumeak soilik elkartzea, eskuz esku eraiki ditzakegun alternatibek gugandik sortuak izan behar baitute».

Lan handia egiteko

«Lan handia egin da orain arte, baina asko dago egiteko». Horixe adierazten du bosgarren Topaketako leloak. Izan ere, Leitzan 2001ean eginiko lehen topaketen ostean Euskal Herriko Bilgune Feminista sortu zenetik pauso ugari eman dituzte, «zapalkuntza

patriarkalarekin amaitzeko bide ona» hartua dute, eta euren proiektua «babezuago» sentitzen dute. Egun bizi dugun egoeraz, berriaz, «feministen arteko akordioa eta lankidetzeta inoiz baino garrantzitsuagoa» dela diote, «gure eskubideen behin betiko aitortza lortzeko abagune ezin hobea baita oraingoa». Egungo egoeraz, eta aurrera begira eman beharreko pausoez eztabaidatzeko aukera polita izango dute ekimena antolatutako hiru egunetan, baina emakumeek soilik. Izan ere, iluntzeko ekitaldiak eta igande eguerdiko ekitaldi nagusia baino ez dira izango emakumezko nahiz gizonzkoentzat. «Garrantzitsua iruditzen zaigu emakumeak soilik elkartzea, eskuz esku eraiki ditzakegun alternatibek gugandik sortuak izan behar baitute».



Otsailako kartela. HITZA

Ekitaldi ugari gozatzeko aukera Atekabeltzen, otsailean

I. Terradillos Leitza

Ekitaldiz bete izango da otsaila Leitzako Atekabeltz gaztetxean. Batetik, hilaren 10ean, herritarra den Urko Arozenak *Entrenamendu mentala jendaurreko saioak prestatzerakoan* saio praktikoa eskainiko du. 19:00etan izango da, eta nahi duen orok parte hartu ahaliko du.

Bestalde, hilaren 16an, Argia emanaldien bigarrena izango da. Lucio igeltsero eta anarkista nafarrari buruzko dokumentala izango da ikusgai. 17an, berriz, didgeridoo musika tresnarekin trebatzeko aukera izango da egun horretarako 17:30ean antolatutako tailerri esker. Bestalde, 20:00etan beatboxa, muxugitarra eta beste hainbat instrumentu didjeridooarekin nahastu dituen Iban Nikolainen kontzertuaz ere gozatu ahaliko da egun berean, 20:00etan hasita.

Atekabeltz gaztetxeok herri-eritarrak gonbidatzen dituzte gaztetxera ekitaldietan parte hartzera.

‘Melancholia’ filma emango dute asteburuan Leitzako zineman

I. Terradillos Leitza

Lars Von Trier zuzendariaren *Melancholia* filma izango da ikusgai asteburu honetan Leitzako zineman. Etzi 22:30ean eta igandean 19:30ean botako dute, ohi bezala. Ikusle bakoitzak 6 euro ordaindu beharko ditue sarrerarengatik.

o leitzaldea@hitza.info

↓ Egitaraua

MARTXOAK 2, OSTIRALA

- **16:00-18:00.** Izen ematea zinean.
- **18:00-20:00.** Mahai inguru nagusia eta eztabaida: 'Prozesu demokratikoa eta emakumeon hitza: han eta hemen'. (Nazioarteko esperientziak ezagutu eta gurean fintzen joateko tartea izango da).
- **20:00-02:00.** Afarria eta emanaldi akustikoa Atekabeltz herrigunean.

MARTXOAK 3, LARUNBATA

- **09:30.** Izen ematea zinean.
- **10:00-12:00.** Mahai inguru nagusia: 'Eredu ekonomikoa eta sozial feminista eraikitze bidean; gaurdanik, urratsak emanez'.
- **12:00-14:00.** Eztabaida tailerrak: zaintza, elikadura, subiraizua, osasuna, prostituzioa, emakume presoak.
- **16:00-20:00.** Esparru anitzeko jardun feminista ezagutuz.

Hainbat tailer izango dira aukeratan.

- **20:00-04:00.** Afaria eta festa Atekabeltz herrigunean: antzerkia, kontzertuak, Dj-ak...

MARTXOAK 4, IGANDEA

- **09:30.** Izen ematea zinean.
- **10:00-12:00.** Mahai inguru nagusia: 'Independentzia dugu bidea eta helburua: Euskal Herria feminista'.
- **12:00-13:00.** Ondorioak.

IZEN EMATEA

- **Aurrez.** 2012topaketafeministak.wordpress.com blogean. Egun guztietarako edota egun bakarrerako den zehaztu behar da. Egunean bertan ere egin ahaliko da.
- **Prezioa.** Egun guztietarako (otorduak, tailerrak eta lotarakekua) 25 euro. Egun baterako (otorduak eta tailerrak) 12.
- **Ordainketa.** 3035 0129 19 1290033730 zenbakian.

Leitzarren txanda da Bardoak bertsolari txapelketan

Leitzaundi eta Leitza ta leitzarrak taldeen lehen lehiak izango dira asteburuan; igandean Leitza izango da saioa

Rebeka Calvo Leitza

Asteburu honetan izango da leitzarren txanda Nafarroako Bardoak taldekako txapelketan. Txanda bikoitza da gainera; leitzarren taldeek saioa dituzte, eta horietako bat, Leitza bertan da, eta beraz, Leitzaundik izan du saioa antolatzeko ardura. Izan ere, Bertsozale Elkartek lehiaketa antolatzerakoan zenbait arau jarri zituen, tartean, talde bakoitzak etxeko saioa antolatzeko ardura izango zuela.

Lehen saioa ostiralean izango da, hilak 10. 20:00etan elkartuko

dira Barañaingo Haizea elkartean, eta bertan Beteranoak, eta Joxema Leitzak, Jose Luis Barberia *Zilik* eta Mikel Azpirozek osatzen duten Leitza ta Leitzatarrak taldeak ariko dira.

Egun berean, baina Berako Kaxerna gaztetxean berriz, bertso afaria egingo dute 21:00etatik aurrera. Bertan Migel Mari Elozegi *Luze*, Iñigo Ibarra eta Iñigo Sagastibeltzak osatzen duten Leitzaundi eta Beratarrak taldeak izango dira.

Leitzako saioa, hala ere, igandean izango da. Aurrera elkartean ariko dira 18:00etatik aurrera, eta bertan Leitzaundi eta Barideak izango dira.

Orain arte lau saio izan dira; Etxarri Aranatzan, Iruritan, Donezteben, Lesakan eta Elizondon. Finala martxoaren 31n izango da, Leitza, eta bertan hiru talde izango dira lehian.



Leitzaundi taldea ariko da igandean, Leitzako saioan. NAFARROAKO BERTSOZALE ELKARTEA

Iñigo Sagastibeltza • Leitzaundi taldeko kidea

«Akordeoiarekin eta aho-soinuarekin ariko gara saioan»

↓ Asteburuko saioak

OTSAILAK 10, ETZI

■ **Barañain, Haizea elkartea.** 20:00etatik aurrera bertso merienda egingo dute. Taldeak: Beteranoak (Saioa Alkaiza, Ander Baiano, Mikel Lasarte) eta Leitza ta leitzarrak.
■ **Bera, Kaxerna gaztetxea.** 21:00etatik aurrera bertso afaria. Taldeak: Beratarrak (Julen Zelaieta, Patxi Castillo eta Aitor Elxepuru) eta Leitzaundi.

OTSAILAK 11, LARUNBATA

■ **Intza, herriko ostatua.** 14:00etatik aurrera bertso bazkaria. Taldeak: Mailope (Aritz Saragueta, Oskar Estanga eta Migel Angel Ortiz de Guzman) eta Rimak Exkaxko (Iñigo Olaetxea, Estixu Fernandez eta Eneko Fernandez).
■ **Aniz, Mendiarte elkartea.** 21:00etatik aurrera bertso afaria. Taldeak: Erauntsi (Iker Gorosterrazu, Alazne Untxalo eta

Amaia Elizagoien) eta Altzuri, Edurnezuri eta amaordeak (Iban Garro, Josu Sanjurjo eta loar Tainta).

■ **Txantrea, Euskaldunon Biltokia.** 14:00etatik aurrera bertso bazkaria. Taldeak: Desterratuak (Julio Soto, Irati Majuelo eta Unai Uberetagoena) eta Di-zerdit (Xabier Silveira, Ekaitz Astiz eta Aitor Irazu).

OTSAILAK 12, IGANDEA

■ **Leitza, Aurrera elkartea.** 18:00etatik aurrera bertso merienda. Taldeak: Leitzaundi eta Bar-ideak (Jon Elizetxe, Iñaki Aleman eta Kotte Plaza).
■ **Iruñea, Zaldiko Maldiko elkartea.** 18:00etatik aurrera bertso merienda. Taldeak: Bertze maldikoak (Ainhua Aranburu, Aimar Karrika eta Oskar Sanz de Acedo) eta Lepatanatuek (Jon Barberena, Oier Amiano eta Xabier Maia).

R.C. Leitza

Igandean, hilak 12, Leitzako Aurrera elkartean izango da Bardoak txapelketako saioa. Bertan Leitzaundi eta Bar-ideak taldeak ariko dira, eta azken hauek saioa antolatzeko ardura izan dute, gainera. Iñigo Sagastibeltza da Leitzaundi taldeko bertsolarietako bat.

Nola antolatu duzue igandeko saioa?

Berez asmoa, bazkariak edo afariak antolatzeko zen. Baina azken merienda antolatu dugu. Askaria hartu eta gero egingo dugu saioa.

Eta nolako saioa ikusi ahal izango da Aurreran?

Saio bakoitzean taldeek agurra pentsatuta eraman behar dute, eta guk ere egin dugu. *Luze* eta biok akordeoia eta aho-soinua joko ditugu, mozorrotuta aterako gara... Emanaldi berezia izango da. Eta ni bezalako hasibe-

rrientzat oso egokia; lotsa kentzeko, giroten joateko...

Bertsolariak beraz, kantatzeaz gain, saioak antolatzeko eta epaile izateko ardura duzue.

Ni Doneztebeko saioan izan nintzen epaile, eta oso gauza berezia egin zuten. Ijituz jantzita joan ziren, agurra tronpetekin egin zuten... Kurioa izan zen oso.

Bertsolehiaketa berezia da, beraz.

Oso berezia da, eta jende desberdina bertsolarietara gerturatzen aukera ematen du. Esate baterako, orain gutxi Barañainen izan zen saioa, eta kuadrila kokorra bildu zen, oso polita izan zen. Barañain ez da oso leku euskalduna, eta bertara Egaña eramanen baduzu, badakizu jendea joango dela, baina behar bada bertakoa baino, inguruko herrietakoak joango dira... Txapelketa honekin herriko taldeak hartzen du parte, eta lagunak, senideak... joaten dira ikustera. Txapelketa kutsua kendu nahi izan diote

Bardoaki, horrela jende gehiago animatzeko.

Presio gutxiago duzue Bardoaren, beraz.

Nafarroako Bertsolari Txapelketan presioa handiagoa da, 35 bateg emate dute izena, eta Bardoak txapelketan gehiago gara. Presio hori ez du jende guztiak agoantzen.

Bi talde osatu dituzue Leitza, nola banatu zineten?

Bertsolari bakoitzak izena eman zuten Bertsozale Elkartean, eta beraiek osatu zituzten taldeak zonaldeen arabera. Gurean, Leitzaundin, Migel Mari Elozegi *Luze*, Iñigo Ibarra eta hiruak gauden. Iñigo Ibarra ez da leitzarra, baina bere ama leitzarra da. Beste taldean, Leitza ta leitzarrak, Jose Luis Barberia *Zili*, Mikel Azpiroz eta Joxema Leitza daude. Leitza Arbizuko da, baina Leitzako bertso eskolako irakaslea da, eta horregatik sartu dute talde honetan.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



10°
-10°

GOIZA	LAINTUTA
ARRATSALDEA	LAINTUTA
BEROENA	4°
HOTZENA	0°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.M.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Rebeka Calvo
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info.
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu.
Tolosa: 687 410 082-687 410 032. tolosa@hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@hitza.info.

**Tolosa Herria Hedabideak
S.M.ko kideak:**



eta Tolosaldeko
eta Leitzaldeko
beste 77 eragile

**Hitza-k
Bai
Euskarari**



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak:

Aduna, Alegia, Altzo, Amezketeta, Anoeta, Areso, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidegoian, Elduain, Herrialde, Irura, Leitza, Orendain, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Irudia Tolosa



NIKARAGUAKO EMAKUMEAK LAGUNTZEKO

Amarozko auzo elkarteak urtero antolatzen duen merkatu txikia atzo ireki zuten. Tolosako kultur etxean jartzen dute urtero, eta bil-tzen duten dirua Nikaraguako emakumeak laguntzeko bideratzen dute. Hain zuzen, Xochilt Acalt izena duen emakume zentrorra bidaltzen dute dirua, bertan emakumeak alfabetatzen dituzte, eta

ondoren, emakumeetako batzuk unibertsitatera joateko aukera izaten dute horrela. Amaroazko bizilagunek esandakoaren arabera, emakume gehienek nekazaritza edo albaitaritza ikasketak egiten dituzte zentrotik pasa eta gero. Merkatu txikia 10:00etatik 13:00etara, eta 17:00etatik 20:00etara egoten da zabalik. I. GARCIA

Agurrak



Urte askoan!

Oihan Lopetegui Etxedona (Gaztelu). Gaur 4 urte. Zorionak eta muxu asko, etxeko guztien eta bereziki Nahiaren partetik.



Araia Gofii Artola.

Gaur urtetxo bat. Zorionak aitatxo, amatxo eta etxeko guztien partez. Muxu bat sorgin!

AGURRAK
943-65 56 95
tolosaldean@hitza.info

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...



Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Tolosa, M.I. Kale Nagusia, 7. Telefonoa: 943 67 06 48.
- **Leitza.** Larraia, M.I. Elbarren, 95. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Agenda

DEIALDIAK

- **Anoeta.** Loatzok ostiralean, hilak 10, ospatuko duten Kalde-roetako emanaldietako entseguak antolatu ditu. Gaur bilduko dira 18:00etan, frontoian.
- **Ibarra.** Loatzok ostiralean, hilak 10, ospatuko duten Kaldere-roetako emanaldietako entseguak antolatu ditu. Gaur bilduko dira 19:00etan, Alurr dantza taldearen lokal zaharrear.
- **Tolosa.** Amaroaz auzo elkar-teko kideek antolatutako merkatu txikia igandea bitarte egongo da zabalik Tolosako kultur etxeko areto nagusian 10:00etatik 13:00etara, eta 17:00etatik 20:00etara.
- **Tolosa.** Aitzol udal eskal-tegiak euskara ikasteko matrikula epea ireki du. Hilaren 15ra bitarte egongo da zabalik, 09:00etatik 13:00etara, eta 16:00etatik 19:00etara. Matrikula euskaltegian bertan egin behar da (Gorosabel kalea 34 B-3. solairuan). Informazio gehiago eskuratzeko deitu 943 65 10 06 edo 943 65 23 43 telefono zenbakietara.

Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean

liburua erosteko aukera duzue:

- **Liburudendetan:** Prezioa 21 € eta harpidedun txartelarekin 18 €
Anoetan: Kuku-lore liburudendan.
Ibarran: Lurdes liburudendan.
Tolosan: Aramburu liburudendan, Elkar liburudendan eta Babel liburudendan.
Villabonan: Kazetaria liburudendan.

• **HITZAKo bulegoan:** Prezioa 18 € eta harpidedunek 15 €

Eskaintza berezia

HITZAren egoitzara etortzean, '1936ko Gerrako Oroitzapenak' liburua ere eskuratu ahal izango duzue: prezioa 10 € eta harpidedunek 8 €. Frankismoa eta Trantsizioa Tolosaldean eta Leitzaldean + 1936ko Gerrako Oroitzapenak, bi liburuk, 25 €, harpidedunek 20 €.

